

Esportazioak % 0,7 jaitsi dira 2023ko urrian Euskal AEn; jaitsierarik txikiena izan da apirilaz geroztik

Urteko metatuari dagokionez, esportazioak 27.000 milioi eurotik gorakoak izan dira, eta % 0,2ko igoera izan dute aurreko urtekoekin alderatuta

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko ondasunen **esportazioek** (2.814 milioi euro) % 0,7ko beherakada nominala izan dute 2023ko urrian, aurreko urteko hil berarekin alderatuta, batez ere produktu energetikoei % 35,4ko beherakada izan dutelako. Produktu ez-energetikoei, berriz, % 2,5eko igoera izan dute.

Inportazioen kasuan (2.229 milioi euro), % 12,6ko beherakada gertatu da. Inportazio ez-energetikoei % 7,6ko beherakada izan dute, eta inportazio energetikoei % 25,0koa. Azken inportazioen kasuan urtetik urterako alderaketa inportatutako tonekin egiten badugu, beherakada % 22,1koa izan da.

Merkataritza-saldoa positiboa izan da, eta 584,7 milioi euro ingurura iritsi da. Horrela, beraz, % 126,2ko estaldura-tasa ahalbidetu da.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Urria 2023

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urria			Urria		
	2022	2023	Gehikuntza (%)	2022	2023	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	2.832.731	2.813.829	-0,7	2.551.704	2.229.097	-12,6
ENERGIAZKO GAIAK	236.711	152.842	-35,4	743.298	557.567	-25,0
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.596.020	2.660.987	2,5	1.808.406	1.671.530	-7,6
URTEKO METATUA	27.072.085	27.112.814	0,2	24.424.593	22.839.709	-6,5
ENERGIAZKO GAIAK	2.365.087	1.340.362	-43,3	7.078.216	5.804.936	-18,0
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	24.706.997	25.772.452	4,3	17.346.377	17.034.773	-1,8
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	875.491	943.979	7,8	470.924	523.033	11,1
URTEKO METATUA	7.750.526	8.638.870	11,5	4.689.425	5.077.769	8,3
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	1.118.317	1.026.553	-8,2	1.580.973	1.270.032	-19,7
URTEKO METATUA	11.139.148	10.119.657	-9,2	14.934.863	13.364.365	-10,5
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	838.923	843.297	0,5	499.806	436.032	-12,8
URTEKO METATUA	8.182.410	8.354.287	2,1	4.800.305	4.397.575	-8,4

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2023ko Abenduaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Urrian erregistratutako hazkunde-tasa negatiboa Bizkaiko lurraldean izandako jaitsiera handiak baldintzatu du (% 8,2ko jaitsiera). Araban, tasa horrek % 7,8ko igoera izan du, eta Gipuzkoan, berriz, % 0,5ekoa. Bizkaiaren kasuan, esportazio energetikoek % 35,8ko beherakada izan dute aurreko urteko hil berarekin alderatuta. Lurralde horretan, azken zortzi hilabetetan erregistratu dira tasa negatiboak.

Araban, esportaziorik handienak honako hauetan egin dira nagusiki: *“Garraio-materiala”* (guztizkoaren % 60,7), % 10,9ko igoerarekin eta guztira 573,4 milioi euroko esportazioekin; eta *“Metalak eta haien manufakturak”* (guztizkoaren % 14,5), % 13,9ko jaitsierarekin; horiek izan dira urriko *“muga-zergen bi sekziorik”* garrantzitsuenak. Igoera handia izan duen partida bat *“Material, makina eta aparatu elektrikoak”* izan da berriz ere (% 42,2ko igoera). Partida horretan, esportazioen balioa 63,1 milioi eurora iritsi da.

Gipuzkoan, nazioarteko merkataritzaren hiru laurden (% 75,7) muga-zergen hiru sekziotan bildu da, urtetik urterako alderaketan portaera desberdina izan badute ere: *“Material, makina eta aparatu elektrikoak”* (% 10,1), *“Garraio-materiala”* (% 25,1) eta *“Metalak eta haien manufakturak”* (-% 15,0).

Bizkaiaren kasuan, esportazioek gora egin dute *“Garraio-materiala”* sekzioan (% 27,6), baina jaitsiera esanguratsuak izan dituzte *“Produktu mineral eta energetikoak”* sekzioan (-% 32,6). Azken kasu horretan, aurreko urteko hil berean baino 77,3 milioi euro gutxiago izan dira, eta 159,7 milioi euro izan dira guztira. Hortaz, 117 mila tona gutxiago esportatu dira.

Jatorri eta helmugako herrialdeak, 2023ko urria

2023ko urrian, bost herrialde (Alemania, Frantzia, Belgika, Ameriketako Estatu Batuak eta Erresuma Batua) izan dira Euskal AEko bezero nagusien taldea osatu dutenak, esportazio guztien % 51,2 hartu baitituzte (1.441,2 milioi euro). Herrialde horietako hiru EB-27koak dira (entitate horrek guztizkoaren % 64,2 bildu du).

Alemania esportazioen sailkapeneko lehen tokian geratu da, 453,3 milioi euroekin, eta jasotzen dituen 396 produktu moten artean, automobilaren sektoreari lotutakoak nabarmendu dira: *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (114,6 milioi euro), *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (82,9 milioi euro), *“Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak”* (35,9 milioi euro) eta *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (22,8 milioi euro).

Frantziara egindako esportazioen zenbatekoa 415,5 milioi eurora iritsi da, eta honako hauetan egin dira nagusiki: *“Petrolioaren olio finduak”* (53,6 milioi euro), *“Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak”* (27,1 milioi euro), *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (26,6 milioi euro), *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (22,1 milioi euro) eta *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (16,8 milioi euro). 671 produktu mota esportatu dira guztira.

Belgikara 210,9 milioi euroko esportazioak egin dira, eta honako hauek nagusitu dira egindako transakzioetan: *“Petrolioaren olio finduak”* (54,3 milioi euro), *“Muga-zergen berariaz jasota ez dauden salgaiak”* (35,6 milioi euro), *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (30,2 milioi euro), *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (17,9 milioi euro) eta *“Trenbideetarako automotorrak eta tranbia autopropulsatuak”* (13,6 milioi euro). Guztira, 266 produktu izan dira.

Laugarren tokian Ameriketako Estatu Batuak kokatu dira, 181,3 milioi euroekin, eta esportazioak honako partida hauetan egin dira: *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (31,2 milioi euro), *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (14,8 milioi euro), *“Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak”* (13,9 milioi euro) eta *“Biodiesela eta haren nahasteak”* (13,4 milioi euro). Guztira, 344 produktu mota izan dira.

Euskal Autonomia Erkidegoak Erresuma Batura egindako esportazioak 180,1 milioi eurora iritsi dira, eta honela banatu dira: *“Turboerreaktoreak, turbopropultsoreak eta gainerako gas-turbinak, piezak eta osagaiak barne”* (18,3 milioi euro), *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (17,2 milioi euro), *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (14,5 milioi euro), *“Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”* (13,9 milioi euro) eta *“Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko xafla, barra, profil, hodi eta antzekoekin egindako eraikuntzak”* (13,8 milioi euro). Guztira, 442 produktu mota izan dira.

Bestalde, Errusiara egindako esportazioak (3,9 milioi eurokoak) *“Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitu, bete, itxi eta etiketatzeko makinak”* sekzioan egin dira nagusiki (1,9 milioi euro). Gainerako zenbatekoa (2 milioi euro) 21 produkturen artean banatu da.

Gure **inportazioen** % 50,4 EB-27tik iritsi dira hil honetan. Ondasun-hornitzaileak izan diren herrialdeen artean, Alemania nabarmendu da 347 milioi euroko transakzioekin, batez ere *“Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak”*, *“Enbolo, diesel edo erdi-diesel motorrak”*, *“Motor eta sorgailu elektrikoak (talde elektrogenoak izan ezik)”* eta *“Ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm”* partidetan (53,1, 43,2, 14,5 eta 13,3 milioi euro, hurrenez hurren).

Frantziaren kasuan, produkturik eskatuena *“Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra”* izan da, 26,3 milioi euroekin (164 milioi euro guztira, 709 produktu motatan banatuak).

Italiatik 538 produktu mota iritsi dira, eta batez ere metal arrunten eta burdinazko eta altzairuzko galdaketaren eta haien manufakturen taldeko (43 milioi euro) eta makineriaren eta garraio-materialaren taldeko (36 milioi euro) produktuak izan dira.

EBtik kanpo, Brasil nabarmendu da, 249,8 milioi euroekin. Zenbateko horretatik, 225 milioi euro *“Petrolioaren edo material bituminosoaren olio gordinak”* partidari dagozkio.

Txinatik inportatutako produkturik garrantzitsuenak *“Metagailu elektrikoak eta haien zatiak”* izan dira berriz ere, 41,1 milioi euroekin (178,1 milioi euro guztira).

Hil honetan, Errusiako inportazioak 6,8 milioi eurora iritsi dira, eta honela banatu dira: *“Landu gabeko aluminioa”* (5,7 milioi euro), *“Titanioa eta haren manufakturak, hondakinak barne”* (0,5 milioi euro) eta *“Landu gabeko nikela, aleatuta edo aleatu gabe”* (0,2 milioi euro).

Inportazio energetikoak honela banatu dira: 308,8 milioi Amerikakoak (% 55,4), eta, haien barruan, 225,0 milioi Brasilgoak, 48,4 milioi Mexikokoak eta 35,3 milioi Ameriketako Estatu Batuetakoak; 123,8 milioi Asiakoak (% 22,2), eta haien barruan, 62,8 milioi Kazakhstangoak eta 60,8 milioi Irakekoak; 73,2 milioi Afrikakoak (% 13,1), guztiak Nigeriakoak; eta 51,8 milioi Europakoak (% 9,3), ia guztiak Belgikakoak (30,1 milioi) eta Herbehereetakoak (18,2 milioi).

2023ko urrian merkaturatutako produktuak

Produktuen xehetasuna lau digitura eramanez gero ikus daitekeenez, **muga-zergen** hamar **partida** nagusiek **esportazioen** % 43,7 bildu dituzte 2023ko urrian, 1.229,1 milioi euroko balioarekin.

Muga-zergen 25 partida nagusiez osatutako taldearen barruan, haietako lauk izan duten igoera nabarmendu da: *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (333,4 milioi euroko esportazioak), *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (206,7 milioi euroko esportazioak), *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (122,6 milioi euroko esportazioak) eta *“10 pertsona edo gehiago –gidaria barne– garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (27,1 milioi euroko esportazioak). Bestalde, *“Petrolioaren olio finduak”* partidak izan duen beherakada nabarmendu da (-% 35,0). Zehazki, aurreko urteko hil berean baino 75,8 milioi euro gutxiago izan dira, eta guztira 140,6 milioi euroko esportazioak egin dira.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera (p). Urria 2023

		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.813.829
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	333.444
2	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	206.738
3	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	192.085
4	2710	Petrolioaren olio finduak	140.587
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	122.575
6	8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatueterako	60.454
7	9990	Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	49.408
8	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	44.624
9	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	41.249
10	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	37.934
11	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	34.719
12	8411	Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	31.992
13	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	28.392
14	0303	Arrain izoztua xerratu gabe	27.518
15	8702	Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	27.064
16	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	26.329
17	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	24.999
18	7222	Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	23.858
19	2204	Ardoa, mahats freskoarena	23.324
20	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	22.473
21	7308	Xafien bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	21.421
22	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	21.204
23	7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	20.462
24	8501	Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	20.444
25	8301	Metal arruntzeko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	19.500

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Abenduaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, eta muga-zergen partidarik garrantzitsuenei dagokienez, igoera handiak honako hauetan gertatu dira: *“Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak”* (103,8 milioi euroko inportazioak), *“Berotan ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm”* (70,7 milioi euroko inportazioak), *“Metagailu elektrikoak eta haien zatiak”* (47,1 milioi euroko inportazioak) eta *“Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra”* (35,3 milioi euroko inportazioak).

Jaitsieren kasuan, partidarik garrantzitsuena *“Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak”* izan da (guztizkoaren % 22,7), eta % 21,8ko beherakada izan du inportazioetan (2022ko hil berean baino 141,1 milioi euro gutxiago inportatu dira). Nolanahi ere, erosketen guztizkoa 504,9 milioi eurora iritsi da.

ARABA. 2023ko urriko esportazioak

Araban, esportazioek % 7,8ko igoera izan dute aurreko urteko hil berarekin alderatuta. Portaera hori honako hauetan agertu da batez ere: *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (301,5 milioi euroko esportazioak), % 1,0ko igoerarekin, *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (206,5 milioi euroko esportazioak), % 38,1eko igoerarekin, eta *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (48,8 milioi euroko esportazioak), % 30,1eko igoerarekin. Halaber, igoerak izan dira honako hauetan: *“Burdinazko edo altzairuzko beste hodi eta profil huts batzuk”* (% 84,0) eta *“Ardatz eragileak, kojinetak, engranajeak, enbrageak eta abar”* (% 69,1), 7,5 milioi euroko esportazioekin.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urria 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	875.491	943.979	100,0	7,8
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	298.402	301.451	31,9	1,0
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	149.581	206.517	21,9	38,1
Kautxuzko pneumatiko berriak	37.539	48.836	5,2	30,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	50.046	47.252	5,0	-5,6
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	55.949	39.367	4,2	-29,6
Ardoa, mahats freskoarena	19.851	22.135	2,3	11,5
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	7.724	14.209	1,5	84,0
Altzairu herdoilgaitza, lingotetan edo bestelako forma primarioekin	8.787	12.274	1,3	39,7
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	4.440	7.509	0,8	69,1
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	5.752	7.288	0,8	26,7

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Abenduaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. 2023ko urriko esportazioak

Bizkaiko lurralde historikoan, esportazioek % 8,2ko beherakada izan dute. Bizkaiko esportazioen sailkapenean lehenengoa den *“Petrolioaren olio finduak”* partidak eragin du batez ere beherakada hori. Izan ere, % 35,4ko beherakada izan du, eta esportazioen zenbatekoa 138,1 milioi eurora iritsi da (213,8 milioi euro aurreko urteko hil berean), hau da, 75,6 milioi euroko jaitsiera izan du.

Muga-zergen partida nagusien artean, honako hauek izan duten igoera nabarmendu da: *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (% 21,0ko igoera; 73,2 milioi euro) eta *“Turboerreaktoreak, turbopropultsoreak eta gainerako gas-turbinak, piezak eta osagaiak barne”* (% 62,1eko igoera; 31,9 milioi euro).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urria 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.118.317	1.026.553	100,0	-8,2
Petrolioaren olio finduak	213.777	138.128	13,5	-35,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	60.511	73.188	7,1	21,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	67.956	67.970	6,6	0,0
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	50.830	47.833	4,7	-5,9
Turboerreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	19.658	31.857	3,1	62,1
Arrain izoztua xerratu gabe	28.960	24.962	2,4	-13,8
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	22.502	18.299	1,8	-18,7
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	24.068	17.816	1,7	-26,0
Erabilera tekniko industrialetarako kolpeak eta olioak (animalia- edo landare-)	0	16.710	1,6	-
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	14.755	16.526	1,6	12,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Abenduaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. 2023ko urriko esportazioak

Gipuzkoan, esportazioek % 0,5eko igoera izan dute urrian. % 100etik gorako igoerak egiaztatu dira honako partida hauetan: “Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak eta abar” eta “10 pertsona edo gehiago –gidaria barne– garraiatzeko ibilgailu automobilak”. “Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak” partidak, berriz, behera egin du (-% 42,3).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urria 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	838.923	843.297	100,0	0,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	67.850	76.863	9,1	13,3
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	51.445	60.454	7,2	17,5
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	56.367	32.496	3,9	-42,3
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	5.265	27.064	3,2	414,0
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	29.652	26.961	3,2	-9,1
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	8.116	23.319	2,8	187,3
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	14.792	23.002	2,7	55,5
Metal arrunteko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	19.671	17.915	2,1	-8,9
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	14.603	17.156	2,0	17,5
Material-abio bidez metala zulatu, eskariatu, fresatu edo hariztatze makina-erremintak, tornuak izan ezik	8.702	14.898	1,8	71,2

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Abenduaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2023KO METATUA (URTARRILA-URRIA): ondasunen esportazioek % 0,2ko igoera izan dute, merkataritza-saldoa positiboa izan da eta 4.273 milioi eurora iritsi da, eta estaldura-tasa % 118,7ra iritsi da

2023ko lehen hamar hilabeteetan, Euskal AEko **esportazioek** % 0,2ko igoera izan dute aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, eta, beraz, 40,7 milioi euro gehiago lortu dira esportazioetan. Aldi horretako esportazioen zenbatekoa 27.113 milioi eurora iritsi da, eta ekarpenik handiena Bizkaia egin du, 10.120 milioi euroarekin (guztizkoaren % 37,3). Atzetik, Araba (8.639 milioi euro) eta Gipuzkoa (8.354 milioi euro) kokatu dira.

Araban, esportazioek 888,3 milioi euroko igoera izan dute 2022ko aldi berarekin alderatuta. Aurreko hilarekin alderatuta, berriz, % 11,5 igoera izan dute. Gipuzkoan, igoera askoz txikiagoa izan da (% 2,1, hau da, 2022an baino 171,9 milioi euro gehiago). Bizkaian, berriz, bilakaera negatiboa izan da (1.019,5 milioi euro gutxiago, hau da, % 9,2ko beherakada).

Esportatutako produktu mota kontuan hartuta egiazta daitekeenez, “produktu ez-energetikoen” bilakaera positiboa izan dute, 1.065,5 milioi euro gehiagorekin. “Produktu energetikoen” esportazioak, berriz, 2022ko urrira bitarte metatutakoak baino % 43,3 txikiagoak izan dira (1.024,7 milioi euro gutxiago).

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Urria 2023

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	27.112.814
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	2.631.942
2	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	1.882.136
3	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.801.007
4	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	1.230.060
5	2710	Petrolioaren olio finduak	1.108.774
6	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	611.746
7	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	557.068
8	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	466.996
9	9990	Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	397.139
10	8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	361.241
11	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	359.574
12	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatze barra hutsak	309.659
13	7222	Altzairu herdoigaitzezko barra eta profilak	297.361
14	8411	Turboreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	245.894
15	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	233.652
16	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	233.384
17	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	231.565
18	7308	Xafilen bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	228.673
19	1518	Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	228.385
20	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	226.798
21	0303	Arrain izoztua xerratu gabe	220.492
22	7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	220.325
23	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	219.226
24	8483	Transmisio-ardatzak, kojiniteak, engranajeak, enbrageak, etab.	199.241
25	8301	Metal arruntzeko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	192.810

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Abenduaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Hamar produkturik (edo muga-zergen partidarik) salduenen zenbatekoa 11.048,1 milioi eurora iritsi da, hau da, guztizkoaren % 40,7ra. Haietatik, bost produktuk hazkunde-tasa positiboak izan dituzte 2022ko aldi berarekin alderatuta. Haien artean, honako hauek nabarmendu dira: *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”*, berriz ere Euskal AEko esportazio-bolumenik handiena izan dutenak (2.631,9 milioi euroko esportazioak eta % 22,6ko igoera), eta *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (1.801,0 milioi euroko esportazioak eta % 22,8ko igoera). Aldi horretan portaera bikaina agertu duten gainerako partida garrantzitsuak *“Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak”*, *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* eta *“Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak”* izan dira, eta % 13,6ko, % 18,6ko eta % 5,1eko igoera izan dute, hurrenez hurren.

Bestetik, *“Petrolioaren olio finduak”* partidak izan duen beherakada esanguratsua nabarmendu da (- % 49,1, hots, 2022an baino 1.068,5 milioi euro gutxiago). Beherakada hori ez du prezioen jaitsierak eragin soilik, esportatutako tonek ere % 42,7ko beherakada esanguratsua izan baitute (2.597.317 tona 2022an, eta 1.487.696 tona 2023ko metatua).

Kontuan hartutako aldian, gure esportazioen helmuga-herrialdeen sailkapeneko lehenengoa Alemania izan da (guztizkoaren % 16,3). Alemaniaren atzetik, honako hauek kokatu dira: Frantzia (% 15,0), Ameriketako Estatu Batuak (% 7,8), Erresuma Batua (% 6,3) eta Italia (% 5,6). Bost herrialde horiek esportazioen % 51 bildu dituzte.


Euskal AE osoko **inportazioen** metatua 22.840 milioi eurora iritsi da. Urtetik urtera alderatuta, zifra hori 2022ko aldi berean erregistratutakoa baino 1.585 milioi euro txikiagoa izan dela ikus daiteke. Bizkaian, inportazioen balioa 13.364,4 milioi eurora iritsi da, eta % 10,5eko beherakada gertatu da (hau da, aurreko urteko aldi berean baino 1.570,5 milioi euro gutxiago). Gipuzkoak % 8,4ko beherakada izan du (403 milioi euro gutxiago), eta inportazioen balioa 4.397,6 milioi eurora iritsi da. Azkenik, inportazioetan gora egin duen lurralde bakarra Araba izan da (% 8,3ko igoera, hau da, aurreko urtean baino 388 milioi euro gehiago), eta zenbatekoa 5.077,8 milioi eurora iritsi da.

“Produktu energetikoen” inportazioak aurreko urteko aldi berekoak baino % 18,0 txikiagoak izan dira, eta “Produktu ez-energetikoenak”, berriz, % 1,8 txikiagoak.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 4.273,1 milioi euroko saldo positiboa izan du 2023ko lehen hamar hilabeteetan, eta, horri esker, estaldura-tasa egokia lortu da (% 118,7koa).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62